

Gutun irekia, ekonomia-hezkuntza kritiko, plural eta etikoaren alde

Gure ustez, finantza-hezkuntza besterik gabe areagotzen bada, ekonomia-hezkuntza kritikoago eta pluralago baten partetzat hartu gabe, horrek urrundu egingo gaitu funtsezko helburu bat lortzetik: herritarrak aktiboak izatea eta tresna egokiak edukitzea, batetik, gizartearen erronka globalei aurre egiteko –hala nola krisi ekologikoari eta gero eta ezberdintasun handiagoei–, eta bestetik, gure planetaren jasangarritasunaren eta pertsonen ongizatearen alde lan egin ahal izateko.

Hezkuntza-sistemaren bidez ikasleek konpetentziak, izaera kritikoa eta heldutasuna eskuratu behar dituzte, beren ingurunean moldatzen jakiteko, kontuan hartuta ingurune horretan finantzen pisua gero eta handiagoa dela. Irakaskuntza berrian, sistema finantzarioa erabat bereizita ageri da sistema ekonomikotik, nahiz eta finantzak ekonomiaren tresna eta zati garrantzitsua diren. **Ekonomia**, pertsonen eta ingurunearen beharrei lotutako gizarte-zientzia den aldetik, ikuspegi holistiko eta kritikotik ulertu behar da; finantzak ezin dira modu isolatuan landu, sistema ekonomikoan duten funtzioa eta ondorioak ulertu gabe. Finantzen balioa berreskuratu behar da, pertsonen zerbitzurako tresna inklusibotzat hartuta. Horregatik, **ez zaigu egokia iruditzen curriculumean finantza-hezkuntza areagotzeko eskaera. Gure ustez, finantza-hezkuntza beti landu behar da ekonomiaren irakaskuntzaren dimentsio globalago baten barruan, eta inoiz ere ez modu isolatuan. Ezin dugu ahaztu ekonomia gizarte-zientzia dela, eta, beraz, ondasun komunaren eta gizarte hobea lortzeko helburuaren zerbitzura dagoela.**

Bereziki kezagarria iruditzen zaigu ikastetxeetan sustatutako finantza-hezkuntza; izan ere, finantza-hezkuntza eskola-curriculumean sartu da. 2012ko eta 2015eko PISA (Programme for International Student Assessment – Ikasleen Ebaluaziorako Nazioarteko Programa) txostenen emaitzek erakutsi zuten Espainiako estatuko ikasleen errendimendua beste herrialde batzuetako batezbestekoaren azpitik zegoela, eta kezka horretatik sortu zen finantza-hezkuntza eskoletan sartzeko ahaleginak areagotu beharra.

Finantza Hezkuntzako Eskola Programan 500 ikastetxek baino gehiagok hartzen dute parte, eta **finantza-erakunde konbentzionalak** dira finantza-hezkuntzako ekimen gehien garatzen dituztenak. Gure ikuspegitik, finantza-krisien ondorioek eta desberdinkeria areagotzeak agerian uzten dute zer-nolako eragin negatibo izan dezaketen bai finantzen globalizazioaren kudeaketak eta bai banku-erakunde konbentzionalen jarduerak pertsonen ekonomian eta ongizatean. Finantza Hezkuntzako Ekimenetarako Jardunbide Egokien Kodea 2016an aurkeztu zen, eta bertan aipatu zenez, **inpartzialtasuna** da aplikatu beharreko lehen printzipioa. Baina ez dugu uste hori errespetatzen ari denik, bankuak ari baitira ikasleei materialak eta prestakuntza ematen, eta, hala, irakasgaiak emateko modua mugatzen baita.

Parekidetasuna, gizarte-justizia eta giza eskubideak defendatzen ditugu, eta, ikuspegi horretatik, uste dugu beharrezkoa dela **jarrera kritikoa** izatea finantza-eredu horrekiko eta horren parte diren erakundeekiko, eta era berean uste dugu lehenik eta behin kontuan izan behar dugula zer-nolako eredu ekonomikoa nahi dugun eta zer-nolako lekua izan beharko luketen finantzek eredu horretan. Finantza-hezkuntza hezkuntza-proiektuaren parte bada, funtsezkoa da barnean hartzea zer-nolako inpaktua duten finantza-sistemak eta banku-jardunbideek gizakiengan, gizartean eta ingurumenean, horri buruzko sentsibilizazioa sortzeko eta argi izateko zer erantzukizun indibidual eta kolektibo ditugun gizarte bidezkoagoa, jasangarriagoa eta solidarioagoa eraikitzeko lanean. Finantza-eredu inklusiboa sustatu behar dugu, inolako arrazoiengatik baztertzeko ez duena: ez sexuagatik,

ez generoagatik, ez jatorriagatik, ez eta bazterkeria eragiten duen beste edozein arrazoiengatik ere; gizarte- eta ingurumen-irizpideak dituen eredu bat sustatu behar dugu, giza eskubideak eta Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko hartutako konpromisoak beteko direla bermatzeko.

Horrenbestez, salatu behar dugu Finantza Hezkuntzako Plana gauza bakar batera mugatzen dela: pertsonak finantza-zerbitzuak erabiltzeko trebetasunak hobetzera, sistemaren baitan jarduteko, baina sistema bera edo finantza-ekintzek gizartean dituzten ondorioak zalantzan jarri gabe. Sistema ekonomikoaren ikuspegi hegemonikoa balidatzen da, eta finantzak tresna gisa aurkezten dira, hau da, askatasunaren izenean gure ekintzak modu pribatu eta indibidualean kudeatu eta ziurtatzeko tresna gisa, baina **erabat isiltzen da finantza-erabakiek ongizate kolektiboan duten eragina**. Finantza-hezkuntzak kritikoa izan beharko luke; tresnak eman beharko lizkieke ikasleei, finantza-sistemak pertsonengan eta gure planetan zer-nolako inpaktuak dituen ulertzeko, bai eta gazteei beren diruaren kontsumo kritiko eta arduratsua egiten laguntzeko ere.

Eduki eta eztabaida berriak behar ditugu ikasgeletan, gazteek konpromiso handiagoa har dezaten zenbait auziren alde: **egitura ekonomiko eta sozial bidezkoagoak** eraikitzearen alde, desberdinkeriaren aurka borrokatzearen alde, ingurumena babestearen alde, emakumeak ahalduztearen alde, gobernantza demokratikoaren alde eta giza eskubideak errespetatzearen alde.

Horregatik, gaur egun munduan zer-nolako egoera dugun ikusita, inoiz baino indar handiagoz, **eskaten dugu printzipio etiko horiek dituzten finantzak susta daitezela hezkuntzaren esparruan, eta erakuts dadila finantzak ekonomia errealaren parte direla eta mundua eraldatzeko gaitasuna dutela**. Guk, gure aldetik, koordinatzeko estrategiak sendotzen jarraituko dugu, ekintza bateratua indartzeko; topagune bat eskainiko dugu, irakasleak eta finantza etikoetako nahiz hezkuntza eraldatzaileko erakundeak biltzeko; herritarrak egungo errealitatearen eta horren alternatiben inguruan kontzientziatzea areagotuko dugu; eta **ekonomia- eta finantza-hezkuntza kritiko** eta etikorako bide-orria egiten jarraituko dugu.

Sustatzaileak:



Bultzatzaileak:



Laguntzarekin:

